JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁNGO LEHEN AUZIALDIKO 1 ZENBAKIKO EPAITEGIA

1091

EDIKTUA, diru-zenbateko bat erreklamatzeko bideratutako 258/08 prozedura arruntaren ondoriozkoa.

JAKINARAZPEN-ZEDULA

Donostiako Lehen Auzialdiko 1 zenbakiko Epaitegian, dirua erreklamatzeko 258/08 prozedura arrunta bideratu da, Seguros Zurich España, S.A, Euskaltel, S.A., Mapfre Seguros Generales, S.A. eta Groupama Seguros y Reaseguros, S.A. sozietateek eskatuta, honako hauen guztien aurka: Seguros Lagun Aro, S.A., Juan Carlos Lopez Lorenzo, Joe Oke Oke, Cía. de Seguros Lagun Aro, Juan Carlos Lopez Lorenzo eta Seguros Lagun Aro. Prozedura horretan epaia eman da; hona hemen idazpurua eta epaitza:

33/11 EPAIA

Epailea: Jose Manuel Grao Peñagaricano jauna.

Lekua: Donostia.

Data: bi mila eta hamaikako otsailaren hamabosta.

Alderdi demandatzailea: Seguros Zurich España, S.A, Euskaltel, S.A., Mapfre Seguros Generales, S.A. eta Groupama Seguros y Reaseguros, S.A.

Abokatua: Paulo Ruiz Hourcadette, Sonia Romo Diez, Pedro Valencia de Assas eta Adriana Navajas Laboa.

Prokuradorea: Pablo Jimenez Gomez, Jesus Gurrea Frutos, Maria Pilar Oyaga Urrea eta Tomas Salvador Palacios.

Parte demandada: Seguros Lagun Aro, S.A., Juan Carlos Lopez Lorenzo (auzi-iheslaria), Joe Oke Oke (auzi-iheslaria).

Abokatua: Alberto Maidagan Romeo.

Prokuradorea: Fernando Mendavia Gonzalez.

EPAITZA

Ezetsi egiten dut Jiménez prokuradoreak Seguros Zurich España, S.A. sozietatearen izenean eta ordez aurkeztutako demanda nagusia, Juan Carlos López Lorenzo jaunaren eta Seguros Lagun Aro, S.A. sozietatearen aurkakoa. Hori dela-eta, absolbitu egiten ditut kodemandatuak, euren aurka aurkeztutako uzietatik, eta demandatzaileari ezartzen zaio prozesuko kostuen ordainketa.

Baietsi egiten dut Gurrea prokuradoreak Euskaltel, S.A. sozietatearen izenean eta ordez aurkeztutako demanda, Juan Carlos López Lorenzo jaunaren, Seguros Lagun Aro, S.A. sozietatearen eta Joe Oke Oke jaunaren aurkakoa. Hori dela-eta, lehenengo biak absolbitu egiten ditut, eta hirugarrena, ordea, kondenatu egiten dut demandatzaileari 1.597,97 euro ordaintzera, gehi 2008ko otsailaren 25etik sortutako legezko interesak. Hirugarren demandatu horrek prozesuko kostuak ordaindu beharko dizkio demandatzaileari. Eta demandatzaileari ezartzen zaizkio absolbitutako demandatuei sorrarazitako kostuak.

Ezetsi egiten dut Oyaga prokuradoreak Mapfre Seguros Generales, S.A. sozietatearen izenean eta ordez aurkeztutako demanda metatua, Juan Carlos López Lorenzo jaunaren eta Seguros Lagun Aro, S.A.ren sozietatearen aurkakoa. Hori dela-eta, absolbitu egiten ditut kodemandatuak, euren aurka aurkeztutako uzietatik, eta demandatzaileari ezartzen zaio prozesuko kostuen ordainketa.

Ezetsi egiten dut Salvador prokuradoreak Groupama Seguros y Reaseguros, S.A. sozietatearen izenean eta ordez aurkeztutako demanda metatua, Juan Carlos López Lorenzoren eta Seguros Lagun Aro, S.A. sozietatearen aurkakoa. Hori dela-eta, absolbitu egiten ditut kodemandatuak, euren aurka aurkeztutako uzietatik, eta demandatzaileari ezartzen zaio prozesuko kostuen ordainketa.

Aurkaratzeko modua: apelazio-errekurtsoa aurkeztuz, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiari zuzendua (PZLb, 455. artikulua). Errekurtsoa prestatzeko, idazkia aurkeztu behar da epaitegi honetan bost egun balioduneko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera. Idazki horretan, bestalde, hauek adieraziko dira: apelatutako ebazpena, errekurritzeko nahia eta zein erabaki aurkaratzen den (PZLb, 457.2 artikulua).

Errekurtsoa aurkeztu ahal izateko, 50 euroko gordailua jarri beharko da, eta baldintza hori bete ezean ez da hura izapidetzea onartuko. Gordailua egiteko, zenbateko hori zainpean jarri beharko da, epaitegi honek Banesto taldean (Banco Español de Crédito) duen Gordailuan eta Zainpean jartzeko Kontuan. Kontuaren zenbakia hauxe da: 1845 0000 04 0258 08. Ordainagiriaren kontzeptua idazteko hutsunean, «errekurtsoa» dela adierazi beharko da (kodea: 02-Apelazioa). Errekurtsoa prestatzerakoan, diru-zenbateko hori zainpean jarri izana egiaztatu beharko da (BJLO, 15. xedapen gehigarria).

Errekurtsoa jartzeko gordailua eratzetik salbuetsita daude aipatutako xedapenaren 5. paragrafoan aipatzen direnak eta doako laguntza juridikorako eskubidea aitortua dutenak.

Eta epai horren bidez erabaki, agindu eta sinatzen dut.

Joe Oke Oke demandatuari legez jarritako moduan jakinarazteko egin dut ediktu hau, Donostian, bi mila eta hamaikako otsailaren hamaseian.

IDAZKARIA.